

AMURRIO HIRIKO XII. GABON KANTA ERRONDA

OINARRIAK

- 1.- Erronda Amurrion burutuko da 2021eko Abenduaren 23an, astelehena, arratsaldeko 6etatik aurrera.
- 2.- Koroa 8 pertsonak gutxienez osatu beharko du, bozek eta musika tresnek parte har dezaketelarik.
- 3.- Parte-hartzeko kategoriak:
 - A Kategoria: Koral musikari ekiten dioten ohiko koroek.
 - B Kategoria: Koral musikari ekiten ez dioten lagun taldeek.Koro bakoitzak bietako kategoria batean baino ez du parte hartuko.
- 4.- Kanta egiteko hiru leku dago. Koroek hirutan egingo dute kanta: 1.- Kultur Etxearen aurrean, 2.- Guk pasealekuan, 3.- Larrinaga kaleko oinezko gunea. Koro bakoitzak bi gabon kanta, behintzat, kantatuko ditu hiru leku hauetan.
- 5.- Derrigorrezko gabon kantak Kultur Etxearen aurrean kantatuko dira eta honako hauek izango dira: A kategoria: “*Birjina Maite lotan dago*” eta B kategoria: “*Din dan don*”. Talde bakoitzak aukeratutako beste gabon kanta bat, behintzat, kantatuko du . Derrigorrez gabon kantez gain, koroek beste gabon-kanta batzuk kanta ditzakete edozein lekutan, derrigorrezko lekuez aparte.
- 6.- Honako sariak banatuko dira:

A Kategoria	B Kategoria
1º.- 400 euro.	1º.- 300 euro.
2º.- 250 euro.	2º.- 200 euro.
3º.- 150 euro.	3º.- 100 euro.
- 7.- Oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen dituen koro bakoitzak 75 euroko dieta jasoko du. Sarietako bat lortzekotan ez da egongo dieta jasotzerik.
- 8.- Gabon Kanta Lehiaketarako izen ematea dohainik da eta Amurrioko Kultur Etxean (tflnoa.: 945891450) egingo da, azaroaren 15tik abenduaren 13ra. Izen ematearen epea bukatu eta gero, koro bakoitzari adieraziko zaio parte hartzeko leku eta orduak.